

GOMENDIO DIETETIKO OROKORRAK:

- ✓ Kontsumitu elikagaiak zati txikietan, egunean behin baino gehiagotan. Planifikatu zure ordutegiak egunean 5-6 otordu egiteko. Aprobetxatu janarien arteko aldiak gustukoen dituzun elikagaiak hartzeko.
- ✓ Tratamenduak egin aurretik, elikagaiak hobeto onartzen dira.
- ✓ Gosea aktibatu, aldeztu aurretik azidoak ez diren fruta-zuku kopuru txikiak (sagarra, udarea, azenarioa) eta saldak irentsiz, edo menda-txikleak murtzikatuz.
- ✓ Kontsumitu elikagaiak, ahal dela, giro-tenperaturan edo tenperatura hotzean, testura leuna dutenak.
- ✓ Mugatu frijituak, azidoak edo oso prestatutako elikagaiak hartzea, kozinatu modu errazean.
- ✓ Saihestu janariaren zapore eta usain gogorrak.
- ✓ Ez edan otorduetan, oro har, hartu likidoak zurrutada txikietan janarien ondoren, eta ez edan gas-edaririk.
- ✓ Goizetan hobeto onartzen dira elikagaiak.
- ✓ Goseak zaudenean, ez alferrik galdu jateko aukera.

Aukeratu giro ona:

- ✓ Produktu freskagarriekin ahoratu aurreko aho-higiene egokia.
- ✓ Erabili sabelaldea estutzen ez dizun arropa lasaia.
- ✓ Jan ezazu giro lasai batean eta eman behar adina denbora.
- ✓ Konpainia atsegina.
- ✓ Atsedean hartu otorduen ostean.



Osakidetza

ARABAKO
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
ARABA

Pazientearentzako informazio-orria Emesi atzeraturako tratamendua 2. jarraibidea (luzea)

FARMAZIA ZERBITZUA

Telefono-zenbakia: 945007260

5.0 berrikuspena: 2023ko martxoa

Arabako ESla-AUO Txagorritxu

Ematen zaizun tratamenduak goragalea eta okadak eragiten ditu maiz. Beraz, goragaleak eta gorakoak PREBENITZEA ezinbestekoa da.

Sintoma horiek saihesteko sendagaiak eraginkorrak dira prebentzioz ematen direnean; **errazagoa da sintomak prebenitzea, kontrolatzea baino**. Beraz, beharrezkoa da botikak etxean hartzea, nahiz eta ondo egon.

Atzeratutako emesiaren garrantzia. Atzeratutako emesia goragaleak eta gorakoak dira, tratamendua eman eta 24 ordura gutxienez gertatzen direnak, eta 5 egunera arte luza daitezke, tratamendu mota zein den.

Tratamenduaren lehen zikloaren ondoren emesi atzeratua izan baduzu, litekeena da hurrengo zikloetan ere arazo hori izatea.

MEDIKAZIOAREN ERABILERA EGOKIA

Saiatu medikazioa hartzen, medikuak esan dizun bezala, eta komeni da osatu arte tratamendua ez uztea, nahiz eta hobeto egon.

Ez hartu beste medikamenturik aurretik medikuarekin edo farmazialariarekin kontsultatu gabe.

MEDIKAZIOAK IZAN DITZAKEEN ALBO-ONDORIOAK

Dexametasona-k molestia gastrointestinalak eragin ditzake.

Metoklopramida (Primperan ®) botikak logura edo urduritasuna eragin dezake.

Hurrengo bisitan ez ahaztu zure medikuarekin edo farmazialariarekin edozein aldaketa edo eragozpen aipatzea.

Kimioterapia-tratamenduaren osteko medikazio-pauta Primperan ® eta dexametasona da, jarraian adierazten den eskemaren arabera: Tratamenduak 3 eta 5 egun arteko iraupena du, medikuak adierazten dizunaren arabera.

1. eguna da tratamendu-eguna Eguneko Ospitalean.

	Gosaria 	Bazkaria 	Afaria 
1. eguna		 Primperan® konprimatu bat	 Primperan® konprimatu bat  Dexametasona kapsula bi 4 mg
2. eta 3. eguna	 Primperan® konprimatu bat  Dexametasona kapsula bat 4 mg	 Primperan® konprimatu bat	 Primperan® konprimatu bat  Dexametasona kapsula bat 4 mg
4. eta 5. eguna	 Primperan® konprimatu bat  Dexametasona kapsula bat 4 mg	 Primperan® konprimatu bat	 Primperan® konprimatu bat  Dexametasona kapsula bat 4 mg

* Primperan ® hartu behar duzu bazkaldu baino 30-60 minutu lehenago (6-8 orduan behin har dezakezu). Primperan ® xarabea hartzen baduzu, 10 ml hartu behar dituzu otordu bakoitzean. Dexametasona janariekin gosarian eta afarian.